

ANTZERTZI



EVOKAL-ANTZERTIAREN
ILEROKOAK

"ZANPANTZAR"

TORIBIO ALZAGA

10'en Zenbakia

1932—Urria.

IĒKO BERĒAK.

Akatz bati erantzupena.

Gutzaz jardun diran guziei bein eta beriz gure eskefona agertu beafean gaude: batez ere egunkari ta aldizkingietan maiz aitatzen gaituzten idazle jatorfai.

Jotzen dizkiguten txaloak bezenbat, eman oi dizkiguten onu ta aolkuak jaso ta gureganatzen ditugu.

Asteroko bat ba-da ordea, antzerkietan neska-mutilak batean agertzea akatz larĒa dala diona; ez duna onirizten.

Azketsi adiskide, baĒan gizonzkoekin bakarik ezer gutxi egin diteke. Ta onetarako ez giĒan sortu. Antzertia bizi-izatearen antz-bide ta ispilu ba'da, nai ta nai ez ta geienetan giza-emakumezkoak bear dute izan antzeslari. Noski: mutil ta andereĒo utsez tajaturiko antzerkiak iĒoiz argitaratu ditugu; ta ontan jaraitzeko asmoetan gaude. BaĒan, maizago, antzerki osoak.

Giza-bideak onela eskatzen du ta artu-eman ontatik mutilak neskatxenganako begirapen ta eziera egokia ikasiko dute.

Bestela, ez bildur izan: ez dezute gure *AntzertĒn* Kristau zilegigoaren aurkako lanik arkituko; ta beti oitura on ta abeĒiaren alde leiatuko gera, ikufitz onen pean:

“Ifla luze, nigara labor”.

Zuzendaritza.

“Ureta”-Antzokia

Au da Tolosa'ko Abefi-etxea'n egin duten antzoki aretoaren izena.

Zenbaki au irakurlearen eskuetara iritxi orduko, zabalkunde jaiĒa (Azaroa'k 6) egiĒa izango da. Lenengo antzezkiuna “*Euzko-gogoa*”, Biar jaunaren antzerki eder ta ezagunaz osatu dute. Egun berean aretoan jo zun 20 laguneko orkesta talde bikaĒiak Mokoroa'tar IĒaki zuzendari zutela. Negu guzirako egitarau aukerakoa burutu dute. “*Ureta*”-Antzokia eder ta zabalĒa da: 500 besaulki ta eserleku erosoak ditu; ta beste aĒrera-pen guziaz jantzia dago. Bere neĒrian eredutzat artu diteke.

Zorionak tolosar abertzalĒiei ta beste eĒitan jaraitzaleak izan ditzatela.

Ikusle.

"ZANPANTZAR"

EKITALDI BAKAREAN

TORIBIO ALZAGA'k

ERATUTAKO

JOSTALU PARGILEA (Farsa)



BANAKETA.

- Andre Kaximira; 40 urteko etxeoandre apaña.
 - Xelexe; 19 urteko andereñoa.
 - Txela.
 - Txiala.
 - Fifi.
 - Fifo.
 - Fufu.
 - Lukax; 25 urte, mutil edefa.
 - Bitor; 33 » »
 - Axoliyo; 35 » burmegile edo ojalateroa.
 - Kikiriki.
 - Bernardo jauna; 63'urteko indianoa, gordiña, paketsua.
 - Musiu Kankar; perzkile ungaroa, arpegi eguzkitua, ileluzea.
 - Anbo-ato; arpegi zikin xamafa.
 - Bixigax; gaztea, arpegi zikin xamafa, mozofoa ga-fondoa botea.
 - Turutalaria, Artza, Mozofoak, Mutil koxkofak eta abar.
-
-



ZANPANTZAR

EKITALDI BAKARA.

Iruditegia Donostian Alderdieder'eko zumardia. Atzean Kontxa izpa'ena, auzetik eskutokia dagola. Aldamenetan zugatzak. Iñauteriko erara paper bizkur margo bizikoak adafetatik zintzilik daukazkite. Erdian, atze aldera eser-toki bat. Zarpantzar da. Au da Iñauteri astearte. Gertaera bazkal-ondoan.

LENENGO AGEÑALDIA.

Bifor, Anbo-ato, Mutil koxkořak, Mozořoak eta abar.
Gero Lukax.

Ezkutuzopia altxatzeakoan Bitor esertokian da. Eskeřetik eskuira, Anbo-ato, gramofono turutakin abestuaz igarotzen da. Ondoren ojuka erantzunaz dijoazkie mutil kozkořak, mozořoak eta abar).

Anbo-ato—Anbo ato....
Guztiak —Maratila-tila-tila.
Anbo-ato—Ato anbo.
Guztiak —Maratila-tila-ton.
Anbo-ato—Kafaliña'ren kokotza....
Guztiak —Kataliña-liña-liña.
Anbo-ato—Bada ogei ta zortzi ontza....
Guztiak —Kataliña-liña-lon.
Anbo-ato—Anbo ato....
Guztiak —Maratila-tila-tila.
Anbo-ato—Ato anbo....
Guztiak —Maratila-tila-ton.

(Eskuilik joaten dira, ta beren ojuak geroago ta urutiago entzuten dira, oso galdu arte. —Azkenean mozořo batzuek lgaroko dira iñauteri kařaxiak egiñaz. Gero Lukax ezkeřetik azaltzen da).

- Bitor* —Kaxo Lukax.
Lukax — Oi, Bitor. Zer egiten dek or?
Bitor —Nayago nikek, neonek baneki.

(*Bitor altxa ta Lukax'engana auferatzen da*).

- Lukax* — Nik esanda ez dek ba jakingo.
Bitor — Ta, i zer abil, osabik gabe?
Lukax — Utzi nazak; oraintxe ia burua galdu diat eta.
Bitor — Burua, ez, baña, ik osaba galduko ukan.
Lukax — Ala dek. Eskotiña kalean gatozela, mozoño, maskara piña bat tartian sartu zaiguk, eta alkar galdu diagu.
Bitor — Ófela izan biarko. Bestela, beintzat, nik beti osaba-rekin abilela ikuste at.
Lukax — Ibili biarko.
Bitor — Osaba ófretxek ondo lotzen au.
Lukax — Ez; nik lotzen diat osaba.
Bitor — Ik, lotu?
Lukax — Gaizki esan diat. Lotu egin nai nikek; baña, etxiok lotzen xamuña.
Bitor — Añitzen nak. Nik, ire osaba, gizon ontzat neukatxian.
Lukax — Onez, besterik ez bezelakua dek. Eta maite nitxok, aita batek, aita on batek maite lezaken baño ere geyago.
Bitor — Ófela uste nikan nik beñepin.
Lukax — Nerekin zer egin etzekik; nondik pozez ikusiko nau-ben, nere goguak nola beteko dituben, atsegin geiena nola emango didan. Abora daraman mokarua emango lirakek.... Dituben ontasunak agindubak dizkiat....
Bitor — Orduban....
Lukax — Baña, grña, zale madarikatu bat sortu zaok, eta gu-zia galtzeko bidean arkitzen nak.
Bitor — Zer, gero?
Lukax — Neska gazte bat ikusi ordurako, bi begiyak ondolik zijoazkiok.
Bitor — Begiak besterik ez dijoakionian...
Lukax — Ai, Bitor! Begiak joan ezkeru, gañerakua ere laxter joango dek.
Bitor — Dijuala, ba. Utzi akiok. Iri zer ajola dik?
Lukax — Zer ajola didan? Nere dirubak aize edefa eramango litekek.
Bitor — Iriak, ez. Izatekotan ere, ire osabarenak.
Lukax — Baña, nereak izan bear dutenak... ezkontzen ez bada.

- Bitor* —Ezkondu? Ire osaba ezkondu litekela uste al dek?
- Lukax* —Buruan besterik ez zebilkik.
- Bitor* —Zer adin dik bada?
- Lukax* —Irurogei urtetik gora.
- Bitor* —Eta, adin ofekin, ezkontzeko gogua izan lezakela uste al dek?
- Lukax* —Ez diat ba usteko?... Ezkontzeko berotasunik aundienak, asieran eta azkenean izaten dituk. Edo oso gazteak, edo oso zahak. Tartekoak, i bezela, ez zerate amuan arapatzeko onak.
- Bitor* —Ni ez beintzat. Ni ez nak amu...afai.
- Lukax* —Gai ontan ez ago zangufu txafa.
- Bitor* —Nik ere, irurogei urte izatean, zer edo zer asmatuko diat.
- Lukax* —Orduan ni bezelako iloben bat sortzen ez bazaik. Nere osabari bost ezkontza galdu azi zizkiuat.
- Bitor* —Aizak, i, ta nola da ezkontza galtze ori?
- Lukax* —Bost senargai arkitu, auria artu ta ezkondu arazi, ta nere osabari pipen txortena jo.
- Bitor* —Ta, ori guzia, ik bakañik egin al dek?
- Lukax* —Lan edeñak artuta. Lenbiziko senargaia bilatzen ia zoratu nindukan, bigaenarekin erotu, ta bostgaena arapatu nubenerako ler egin nikan. Gaurko egunean, Donostian senar-gai bat bilatzea zer dan, ik ez dakik, Bitor. Neskaxa gaztia baitzakek jakingo ukek. Nik ederki ikasi diat.
- Bitor* —Amuan beita ona jañi bear.
- Lukax* —Ala ere. Donostian, lenago arkituko ukek arantzale sudur motz bat, senar-gai bat baño. Ta, alaz guztiz, bost arkitu dizkiat! Bost, Bitor!
- Bitor* —Ez akiola iñori esan; bestela neskazar guztiak laxter dituk ire ondotik.
- Lukax* —Ai, ez! Ez diat seigaenaren bila asi nai! Nik uste diat seigaenik ez dala gelditu. Azkenekoa arapatu diatala.
- Bitor* —Tartian bat edo bat geldituko ukan.
- Lukax* —Ez diat uste. Ofengatik osaba lotu nai nikek ba. Seigaenik ezin arkitu dalako.
- Bitor* —Nola lotu ordia?
- Lukax* —Gona itxura duen guzia begi aurretik aterata. Lenago, bere gelan, Santa Katalina'ren irudi eder bat eukitzen zikan; ura atera, ta San Bartolome jañi ziuat. Etñian ba-

genikan neskame oyarzuar bat, neska edera, bikaña, liraña; lanerako azkaña ta trebia. guzitarako artakua... bigaldu diat; eta bere ordez, befogei ta amar urteko atso bat ekari diat, itxusia, begi okeña... ta, gañera, Bermio'koa.

Bitor —Kontuz ibili adi ofekin.

Lukax —Osaba kontuz ibiltzea naikua diat. Gañera al detan guzian, ez diat bakarik uzten. Goizean, mezetara nerekin. Ilunabarean erosariora ere bai. Egualdi ona dagoanean ibilketa bat egitera, biok. Eta emakumeren batzuek inguruan ikusten ditutanean, esaten ziuat: «Osaba, or aize txara dago beofentzat»; eta gonik ez dan aldera eramaten diat.

Bitor —Ofela ez nak afitzen, begiak neskatzken ondotik joatea.

Lukax —Zergatik?

Bitor —Berari joaten ez diok uzten ta.

Lukax —Ez ta utziko ere. Baña, lan txara dek. Beti gañean egon bear. Mutil gazte bat balitz zerbait egin litekek; besterik ez bada, eskola batean sartu... Baña nola nai dek eskolara bialtzea, irurogei urtetik gora dituen osaba bat.

Bitor —Ez, ba; eskolara ere neskatzarekin eraman biarko ukek ta...

Lukax —Ez; neskatzarekin ez! Ez ta Bermiotafarekin ere!

Bitor —Ofengatik ba...

Lukax —Aufian ez daukatanian, bildur bildurez egoten nak. Orain bertan zer egin ote duen zalantzaz beterik niok. Iruditzen zak, ni galdu nauela, baña neskatzax gazteren bat arkitu duela.

Bitor —Etzakala uste.

Lukax —Ezin burutik bota diat. Ik ez dakik nere osaba zer dan.

BIGAREN AGERALDIA.

Lengoak eta Kikiriki.

(Kikiriki, mutil gazte bat mozoño jantzia da. Efo-pak eta txapela emakumezkoak ditu baña oso para-guriak Esku batean enritako puñukatu bat darama, bestean aizeki bat. Atzeko ezkeretik sartzen da, ta Bitor ikusten duenean txistuka ta Karaxika beregana

*juaten da. Gero, izkerari dagokion eran, batean Bitor
gana, bestean Lukax'engana).*

Kikir. —Oi Bitor.

Alproja txara
tiri tafa
trikiti traka
anka baldaña.

Bitor —Ua, emendik, astakirten ori.

Kikir. —Asto ta mandua, ez i bezelakua.

Bitor —Juaten ez ba aiz beriala, begiondoko bat emango diat.

Lukax —Ua, bein esan ezkeru.

Kikir. —Oi, Lukax..... I, emen, katuaraýonekin, ta bitartian
ire osaba, neskatxa gazte eder bat besotik duela onla.....

*(Nor bait besotik balerama bezela atze aldera
ibiltiaz)*

(Kikiriki' rengana lafiturik juanaz)

Lukax —¿Non ikusi dek nere osaba?

Bitor —Ez akiola jaramonik egin, gezuña dek eta.

Kikir. — *(Bitor i)*

Iri! ez; ez dik egingo, tipulen moku ofekin.

Lukax —Non ikusi dekan nere osaba, esan zak beriala.

Kikir. —Neskatxa eder, lirain, panpoxa batekin; arpegi bat
badik..... zuri ta gofi ta kikiriki.

Lukax —Baña, nun, nun?

Kikir. —Bulebarian, kiosko inguruan.

Lukax —Bulebarian?

Bitor —Gezuña dek.

Kikir. —Baña neskatxa, onlakua, onlakua.....

(Beatz mutuñak abora eramanaz)

Lukax —Baniak bere biña.

(Ezkerako aufetik lasterka juaten da)

Kikir. — *(Bere ondotik)*

—Onlakua, onlakua.

Bitor —Gezuña dala.

Kikir. — *(Biurtu ta euritakoarekin Bitor'i jotzera egiñaz)*

—I, bai aizela gezuña, mutil-zar lukanbio, alproja,
galtza-jario.

Bitor —Artu biar dek gaur bat, ire bizian artu ez dekan
bezelakua.

(*Bitor* ek jotzera egiten dio, *Kikiriki*, euritakoakin keñu egiñaz bere jiran dantzatzan da)

Kikir. Alproja txafa
tifi taía
trikiti traka
anka baldaía

Bitor — Emango diat.....

Kikir. - (*Batetan atzeko eskui aldera egiñaz*)
- Utikan; makafoxo..... krakoso!
(*Eskuitik joaten da*)

Bitor — Obe dek joan aizen, bestela a zer kinkiñazua artu biar ukan.

IRUGARREN AGEÑALDIA.

Bitor eta Axoliyo.

Azkenean Fifi, Fofu ta Fufu, ta Bixigax.

(*Axoliyo*, burmegiñe (*oñalatero*) bat da, ta Iñauteri antza artzeko, xerenda margo bizietakoa ta sonbrañu kopalta bat oker oker jañia dauzka. Aundiki itxurak egiñaz aũeko ezkeñetik eskaira igarotzen da).

Bitor — Zelan degu au?

(*Axoliyok txapela ateriaz, Bitor* i agur pañagari bat egiten dio)

— Oi! Axoliyo!

Axoliyo — Ni ez nak Axoliyo. Ni nak markes de Eztabilondo.

Bitor — Baña, zer dek ik gaur?

Axoliyo — Zañpantzar. Iñauteri asteartia. Donostiar jator guztiak beren zelebrekeri punña egiten duten eguna.

Bitor — I beintzat xelebre askua ago.

Axoliyo — Begira akiok, begira, nere dotoretasunari. Etziok one-lako tirilásik. Ormak egiten dik guzia, ormak. Nik sonbrañu kopalta jañia jaio biar nikan.

Bitor — Ire amari ez iokan lan txaña eman nai.

Axoliyo — Nik egunero onlako ginbelarekin zer emango nukela uste dek?

Bitor — Telatu muturñian lanian ari aizenian, ire mutur beltzarekin: tximinia.

Axoliyo — Bai, zera “gaztain eñiak” saltzeko.

- Bitor* — Saldu ez, baña, jan egingo itukek ik.
Axoliyo Bai, bakalau xaltxan. Ik uste dekan baño fiñagua nak ni.
Bitor — Iri begiratu besterik etziok.
Axoliyo — Ori esan. Au gizonaren apaña. Au dek au, zera, nola esaten dute... txin... txon... txun.....,
Bitor — Txin-txon-txun? I, txinoz ari aiz.
Axoliyo — Gizon apañagatik, nola esaten dute, txist edo...?
Bitor — Txist? Ori ixilik egoteko izaten dek.
Axoliyo — Ez. Apain apañai nola esaten ziotek.... txist edo... txit edo....?
Bitor — A! Ik xik esan naiko dek!
Axoliyo — Ori, ori: txik. Au dek txik izatia au. Ta, gero, nere izketa legunarekin.....
Bitor — Betuna ondo emango diok eta.....
Axoliyo — Asten naizenian ni; “a presan, tibiribiri, zifiki mikiti flauti”.... guztiak abua zabalik gelditzen dituk.
Bitor — Iri begira.....
Axoliyo — Neskaxa gaztiak beñiz, txoraturik uzten dizkiat.
Bitor — Beidok lerdia ezpañetatik bera erori.
Axoliyo — Neri, ez; neskaxa gaztai erortzen zaotek.
Bitor — I, ikusita.
Axoliyo — Bai, ba....

(*Eskuitara begiratu ondoren*)

A! Bazetoztik batzuek.
Ikusiko dek, ikusiko dek.

(*Fifi, Fofa ta Fufu eskuitik kañaxika ta saltoka sartu ta Axoliyo'ren aurian gelditzen dira*)

- Irurak* — Axoliyo!
Axoliyo — (*Bitor'i*)
Ikusten dek? Abek dituk Fifi, Fofa ta Fufu.
Irurak — Ori pin-pin, Axoliyo.
Axoliyo — (*Irurai txapela kenduaz*)
— A presan, tibiribiri, zifiki mikiti flauti.
Irurak — Xalero.... Potxolo.... Moñoño.

(*Axoliyo abua zabalik gelditzen da; ta Irurak inñauteri paper txikiak abora botatzen dizkiote. Bereala ezkeretik Bixigax sartzen da, ta bixigarekin bizkar ian jotzen du. Beñero Irurak paperak botatzen dizkiote ta kañasika ta lasterka ezkeretik joaten dira. Bixigax,*

*beñero Axoliyo jo ondoren eskuitik joaten da. Bitor
lenbiziko Axoliyo'ri paperak hota dizkiotenian pañez
ezkeřetik joan da.)*

Axoliyo — Danen artian txautu naute.

LAUGAŘEN AGEŘALDIA.

Axoliyo, Andre Kaximira ta Xele.

Axoliyo — Markes bati ori egiten al zaio?

(Andre Kaximira ta Xele ezkeřetik sartzen dira)

Xele — Oi! Ona, Axoliyo.

A. Kax. — A, bai. Ai zazu, Axoliyo.

Axoliyo — Ni ez naiz Axoliyo; ni naiz Markes de Eztabilondo.

Xele — Ondo ez zabiltzala ezagun dezu, bai.

A. Kax. — Zurekin itzegin bear degu.

Axoliyo — *(Txapela atera ta agurtuaz)*

— A presan, tibiribiri, zifiki mikiti flauti.

A. Kax. — Begira, begira; ez daukagu jostatzeke gogorik.

Xele — Asaře gaude. Oso asaře.

Axoliyo — Ořen panpoxak, eta asaře?

Xele — Bai. Ta zuregatik. Zure lasaikeriagatik.

A. Kax. — Zuk, atzo afatsaldian, gure etxian egin zenuena, ez da iñon egiten.

Xele — Non ziñala uste zenuen.

A. Kax. — Zure pařagari generala edo zer?

Xele — Gure etxia ukulua dala uste al dezu?

A. Kax. — Zure antzekuak giñala?...

*(Biyak batian eta lasterka itzegino dute, ta Axo-
liyo'k ginbelarekin txintxařia balu bezela egiten du.)*

Axoliyo — Tilin, tilin, tilin. Banaka, banaka itzegin.

A. Kax. — Zein zera zu, guri ori agintzeke?

Axoliyo — *(Ginbela ateriaz)*

Markes de Eztabilondo.

Xele — Zu? Alproja txar bat besterik ez.

Axoliyo — Markes de Eztabilondo! Zer uste dute, beok izan bear dutela beti seņora ta, kabaļero ta....?

A. Kax. — Gu ez gera beņere kabaļero izan.

Axoliyo — Ta zimiřimiřimiři, ta zumuřumuřumuřu. Ez, ez. Gaur ni naiz kabaļero, ta ni naiz markes. Ořetarako da Zanpantzar.

Xele — Obe zenuke lanian geiago aleginduko baziņake.

A. Kax. — Gauza bat ondo ez dezu egiten.

- Xele* — Lengo egunian antolatu zenuen olio ontzia ere, ñantua dariola dago.
- A. Kax.* — Jafi zenuen kristala kraskatua.
- Xele* — Eta beste potixa befiz kriskiñatua.
- Axoliyo* — Oiek, amezketar neska afek asmatzen dituen gezurak dira.
- A. Kax.* — Ta afapatu zenuen legatz trontxo edera, amezketarak asmatu al zuen?
- Axoliyo* — Ez; afek, kristala jartzeko eragotzi egiten zidan, ta... zera... iruditu zitzaidan... zera....
- Xele* — Eta zer iruditu zitzaizun arkume xankua?
- Axoliyo* — Tipula gutxitxo zubela.
- A. Kax.* — Etzaude zu, tipula txafa.
- Xele* — Alproja ez besterena.
- A. Kax.* — Alper galbaia.
- Xele* — Lapufa!
- Axoliyo* — Begira, begira. Oraintxen ia aspertu naiz gero.
- A. Kax.* — Ta, beriak aundiagoak.
- Xele* — Petral oni begira.
- Axoliyo* — Zer dira moko luxe abek befiz. Asten banaiz aundiak botako ditut nik gero.
- Xele* — Zer dezu zuk esatekorik?
- Axoliyo* — Asko.
- A. Kax.* — Norengatik dezu esan bifa?
- Axoliyo* — Bien gatik.
- A. Kax.* — Onelakorik ikusi al da?
- Axoliyo* — Ikusi, bai, ikusi. Ta, bi begi abekin gañera.
- Xele* — Zer, gero?
- Axoliyo* — Zera, an, ama alabak, Lukax'en osaba amuan afapatu nairik nola ari ziran.
- A. Kax.* — Gezufa!
- Xele* — Lotsagabia!
- Axoliyo* — Batek zio, ta bestiak zio, agure gizarajua txoratzeko zorian.
- A. Kax.* — Zaude ixilik, mutur zikin alena.
- Xele* — Gezur zulo!
- Axoliyo* — Ez naiz ixilduko, egiya da ta.
- Xele* — Utikan, zarpail alena!
- A. Kax.* — Ez dezu geiago gure etxian oñik jafiko.

(*A. Kaximira ta Xele, oso asare, eskuitik joaten dira*).

BOSGAËN AGEËRALDIA.

Axoliyo ta Bitor

(Axoliyo emakumiak joan diran aldera begira maruka asien da. Bitor ezkefetik sartu ta Axoliyo'ri begira gelditzen da.)

Axolio —Ez ta naire. Zuen krakak garbitzera, dijoala nai due-na. Mari lixiba, Orpo zikin. Lerde jario. Moko luxe....

Bitor —Zer dek, Axoliyo?

Axolio — *(Bitor'i)*

Zera, bi sorgin oiek, Lukax.... ba dakik Lukax'en osa-ba, e? Bien artian ezin berenganaturik....

(Emakumlak joan diran aldera ojuka.)

Mari matraka, Galtza-zale. Befitsu.

Bitor —Baña, aizak, i, i. Nola da gero ori?

Axolio —Ama alaben artian artu zitekana gure gizarajua, ta bi tximu oiek ia txoratua zeukatekan.

Bitor —Egiya al da gero ori?

Axolio —Izango ez dek ba. Ni, betuna ezin bigundurik ari nintzan bitartian; bi antxeta oiek aguria ezin limurturik ari itukan.

Bitor —Lukax'i esan biar ziuat.

Axolio —Bi sorgin oiek amua botako ziotek beriala.

Bitor —Bilatzer a niak.

(Ezkefetik Bitor joaten da)

SEIGAËN AGEËRALDIA.

Axoliyo, Musiu Kankar, Artza, Kikiriki, Txela, Txiala.
Fifi, Fofu, Fufu, Bixigax, Mozoñoak, Mutil koxkoñak
eta Turutularia.

Axolio —Gero, tximu oiek esateko neri, legatza ta arkume xankua.... aiek ez bezelakuak jaten oitubak gaude.

(Musiu Kankar eta Artza ezkefetik sartzen dira. Aiek nafoskiñoa jotzen, makil lodi but dukar, eta kate batez lotua dator Artza.)

M. Kan. —O! Musiu le Axolí.

Axoliyo — *(Txapela ateriaz).*

O! Musiu le Kankar.

M. Kan. —Koman liporte bu?

(Alkafi esku ematen diote)

Axolio —A presan, tibiribiri zifiki mikiti flauti.

M. Kan. —Zer diruik, Axolio?

Axolio —Napolion en Baterlo.

M. Kan. —Bai zera: Napolion en Brokolo.

(Txela, Txiala, Fifi, Fofo, Fufu, Bixigax, Mozofoak eta Mutil koskorak, batetik eta bestetik sartu ta jiran jartzen dira).

Axolio — *(Artzari esku emanaz)*

O! Musiu le Artz.

M. Kan. —Alde egin zak, alde egin zak, lana egin biar diagu orain ta.

Axolio —Ik, lana? Toki onian zio. I beti izan aiz, artza baño alpefagua.

M. Kan. —Ofengatik artzari lan egin azten ziuat. Kofo!

Axolio —Kofo, Kofo!

(Guztiak jiran jafi azitzen ditu)

(Kikiriki eskutik sartu ta atzeko alki gañian exertzen da).

Kikir. —Kikiriki!

M. Kan. —Musius, Madames.....

(Une onetan Turutularia eskutik sartzen da ta turuta juaz guztien erditik igarotzen da, ta ezkeretik alde egiten du. Guztiak oju ta txistuka erasotzen diote)

Musius, Madames: le artz le ařapatu Ergobian, le muskulu ta lanperni ta zizafi'ren kuxkusian joana. Le artz, pixti ikaragaři, baña nik mantxotu.....

Kikiriki —Kikiriki!

M. Kan. - Le lan asi baño len, balsamo trankilo pixka bat artzen du. Ona.

(Zato-ardua erakutsiaz).

Axolio -- Nagusia ta mořoia, a ze bi aguaru.

M. Kan. *(Zato-ardoa artzari aboan jafiaz).*

- Trinkis balsamis. Artza: artzak.

(Artzak zato-ardoa artzen du ta bereala luřean bere zatoarekin etzaten da).

Axoliyo (*Abestuaz*).

—Ua emendikan
mozkor alena
mozkor alena

Guztiak

—Ua emendikan
mozkor alena
mozkor alena.

M. Kan. —Aski. Orain, le dantzi.

(*Zato-ardoa ateratzen dio ta artza zutik jartzen da*).

Axoliyo —Ori dek. Bete bete egin ondorean. Ez gero balantzik egitera. Bestela biak peferara.

M. Kan. (*Artzari makila bizkañean jartzen dio ta dantzatu azten du berak nañoskiñoa joaz abestutzen duen bitartean*).

Trinkulu trankulu

Mari Batixta

senar bat polita
arkitu du

Alpeña, mozkoña
oña nola dan

zifiki zafaka
trinkili tran

Altxa le zanki
zifiki zafaka

trinkiti tran

Altza Pilipi trun lala
zifi zafaka

trinkiti tran.

(*Dantza amaltzian M Kankañak agur egiten du ta guztiak txalotzen dute*).

Axoliyo Kankaña, bejondaikala! Etzeok zubek bezelako dantzaririk Txomiñenian ere.

M. Kan. —Orain bestea. Musiu le Artz: bilatu emen, le neskatx le politen.

Axoliyo —Neskatxik politena!

(*Artzak, batera ta bestera ibili ondoren Kikiriki aukeratzen du*).

Kikir. —Kikiriki!

(*Kikiriki esertokitik jetxi ta artzarekin dantzatzen da*).

M. Kan. - Orain: le gizon astuen.

Axoliyo — O! Gizonik astuena. Au bai izango dala ikustekoa.
Zein ote da kaiku astakirtena.

(Axoliyo aurrera begira dago. Artza batera ta bestera ibili ondoren, Axoliyo'rengana joan eta atzetik bizkarrean jotzen du).

Oi! Ni!

M. Kan. — O! Le Axoli!

Axoliyo — Zirikiki mikiti ilauti.

(Artzari besotik eldu ta eskuitik joaten dira).

M. Kan. — Au bai dala, batekin etofi ta birekin juan
zirikiki zafaka
trinkiti tran.

(Kikiriki, Txela ta Txiala ez besteak eskuitik joaten dira).

ZAZPIGAÑEN AGEÑALDIA.

Kikiriki, Txela ta Txiala.

(Txela ta Txiala ateratzera dijouzenean Kikiriki aurreran jartzen zaiole).

Kikir. — Abek pinpilinpauxak, bi neskatx zoragarri abek!

Txela — Zuaz emendik zarpazar ori.

Txiala — Arlote zarpaila.

Biak — Utikan.

(Neskatxak beste aldera egiten dute baña, Kikiriki beñiro aurreran jartzen zaiole).

Kikir. — Neskatxa politak zerate, bai; baña, politena, ni, ni, ni.

Txela — Zuaz emendik kaiku kirtena.

Txiala — Lukanbio.

Kikir. — Ni, ni; artzak esan du.

Txela — Etzaude zu artza txafa.

Txiala — Lotsagarria.

Kikir. — Baña. zuek. politak zerate, pertxentak, panpoxak.

Txela — Utikan, akulumenditzaña.

Txiala — Euli mandoa.

Kikir. — Zer? politak esan ta asafetu?

Txela — Zirtzila.

Txiala — Astoa.

Biak —Utikan.

(Biak ezkeretik joaten diru).

Kikir. —Utikan itxusi puskak, txima-jario, makartsu, tupin-ar-
pegi. Politena, ni, ni, ni.

(Kikiriki eskuitik joaten du).

ZORTZIGAREN AGEÁLDIA.

Lukax.—Bárenen Pazigileak.

*(Bárenen Pazigillen eresia entzuten da. Beren
eresneurkian Lukax'ek itzegiten du. Lukax ezkeretik
sartzen da).*

Lukax

—Batzuetan ara
bestean onera
ara ta onera ibilirikan
Ez det nik zantzorik
ez det nik astarnik
arkitzen inondikan
Joan alde batera
joan alde bestera
berdin berdintxu gertaturik
ler egin det nik ibildurik
gaurko afatsalde guzian.

—
Non ote da nere osaba
Etzitzaidan galduko ba
Bakarik
Ta nondik
Nigandik
Joan ote da.

—
Neskatxik
ote du
laguntzat
bilatu
ofela bada esan nezake bai
Orain neriak egin du.

—
Nola, nondik, zer dabilen
ezin det nik asmatu

Nigandik
uruti
bear bada
itzuli.

Ixkintxo egin didala gaur
iduritzen zait neri.

—
Ori bada....
Txautu nau....
Pipen txortena orain jo nau.

BEDERATZIGAREN AGEÑALDIA.

Lukax eta Bitor. *Azkenean Txela ta Txiala.*

(Bitor ezkeretik sartzen da).

- Bitor* — A, Lukax. Ire bila nebilekan.
Lukax — Nere osabaren astafanik arkitu al dek?
Bitor — Ez; baña, beñi batzuek jakin dizkiat.
Lukax — Zer, gero?
Bitor — Orain, Mokarugoxoeneko Xele'ren ondotik ibili bear dik.
Lukax — E! Seigarenaren bila asi bear ote det!
Bitor — Bide onetik jakin diat, ama-alaben artean, ire osaba ia txoratu dutela.
Lukax — Nere osabaren begia, e. Neskatz gaztiak aukerutzen ez zioke beste bat.
Bitor — Ori egia dek.
Lukax — Orain bertan ikusten dek, Xele, neskatz polita, ona, aberatsa, argia....
Bitor — Ala dek.
Lukax — Aizak, Bitor. I, beti lagun on bat izan aiz, zintzoa, uste osokoa....
Bitor — Bai, bai; bañan ez nake ari, e.
Lukax — Mutil, ez zakala atzera egin.
Bitor — Eorék esan dek zanguñua naizela, ta zanguñuak ez di-tek auñera egiten.
Lukax — Baña....
Bitor — Zergatik ez aiz coñi Xelerekin ezkontzen?
Lukax — Nola nai dek? Orduban bai nere osabak txibotik gabe utziko nindukela.

- Bitor* —Nik ez at ba estuasun ontatik aterako.
Lukax —A! Bazekiat zer egingo detan. Amarekin ezkonduko nak.
Bitor —Andre Kaximira... alarguna... ta emakume gordiña zio.
Lukax —Bai. Oñela nere osaba, nere semea izango dek.
Bitor —Nola?
Lukax —Nere alabarekin ezkonduko dek eta.
Bitor —Izan ere.
Lukax —Orduban bai lotuko detala. Etzekik zer aita artu bear duben. Badakik, semea aitarena dek.
Bitor —Noski.
Lukax —Eta semearen diruak ere aitarenak dituk.
Bitor —Ik ala diok.

(Txela ta Txiala ezketetik azaltzen dira).

Lukax — Bai, ba...

(Txela ta Txialak Bitor ikusten dute ta beregana lasterka joan eta bi besaetatik eltzen diote).

Txela ta Txiala —Oi, Bitor!

Txela —Mutilzar amoratua, zer egiten daga emen?

Txiala —Neskatx guztiak zugatik txoratzen.

Txela —Ifikitzen.

Txiala —Urtutzen.

Txela —Ta zu, mutil zar, zar, zar...

Txiala —Mutil zar, zar, zar...

(Irurak eskuitik joaten dira).

AMARGAËN AGEËALDIA.

Lukax eta Bernardo jauna.

Lukax — Bai; orixe egingo det.

(Bernardo jauna atzeko eskuitik sartzen da).

Bernardo. —Nun abil, Lukax. Añatsalde guzian ire biña nebiñek.

Lukax —Osaba: buruauste aundiak darabilzkit.

Bernardo —Gizarajua. Ez al ago ondo?

Lukax —Bai, baña.

Bernardo —Ez dek ba izango oñazerik...

Lukax —Ez da ori, osaba... Ara: ezkontzia erabaki det.

Bernardo —Ederki, Lukax... Ez dakik ofekin zer poza ematen diakan.

Lukax —(Berea egiteagatik... Orain ikusiko dek) Badaki Mokarugoxoenekoak, e?...

Bernardo —Xele!

Lukax —Xele, ez; Andre Kaximirarekin ezkondu nai det.

Bernardo —Amarekin?

Lukax —Amarekin.

Bernardo —Neri, alaba, egokiagoa iruditzen zak.

Lukax —(Bai noski: eofentzat) Ez, ez: ama.

Bernardo —Oña, ba. Ni, Xele, iretzat egokia izango zalakoan niokan.

Lukax —Gañera neskatz ofek, beste norbaitekin zer bait ibili bear duela, badakit.

Bernardo —Ez, ori ez. Gai ontan ondo ikasia niok, eta neskatz ofek ez dik ezer inorekin.

Lukax —Osaba, garbi itzegin dezagun: badakit neskatz ofen ondolik... beofi dabifela.

Bernardo —Mutil, etzakala ofelako txorakeririk esan. Ni, muti zar ilko nak.

Lukax —Nola, ordea....

Bernardo —Baña, mutil zañen biziera zer dan dakidalako, ez nik il nai, i ezkondu ikusi gabe. Ofengatik, Xele ta bere amarekin izketaldi batzuek izan dizkiat.

Lukax —Neretzako asmoan?

Bernardo —Bai noski. Ezkontzeko gaiaz itzegiten nikan bakoitziñ, gañez eta txuliuñ artzen ukan. Ofengatik, neroni, iretzako andregai bila asi nindukan.

Lukax —(Besterik uste nuen nik.)

Bernardo —Baña, etzekiat zer gertatzen zan. Nik neskatz batian begia jartzen nuenian, senargai bat sortzen ukan, eta beriala ezkontzen itukan.

Lukax —Eta neretzako asmoan zebilen beori?

Bernardo —Bai, ba. Ori gertatu zaak lau neskatzekin....

Lukax —Lau ez, osaba, bost!

Bernardo —Bost, bai. Egiya dek.

Lukax —(Nere burubari arika ematen ez naiz gaizki afitu).

Bernardo —Ofengatik Xele'rekin ixilian asi nak.

Lukax —Osaba: orain arte egin didan guzia eskergaria da. Orain egiten didana ezkergaia goa. Beofek aukeratu didan andregaiak nere biotza oso osorik betetzen du.

Neskatx polita, ona, aberatsa, argiya....

Bernardo—Dan bezela

Lukax —Berekin ezkonduko naiz; ez bakafik beofen asmoak osatziagatik, nere gogo gogokoa dalako ere bai.

Bernardo —Eta ofekintxe poz aundi bat ematen didak.

Lukax —Nik esango diot.....

Bernardo— (*Eskaira begira*)

Ementxen zetoztik berak.

Lukax —Egia.

(*Biak eskaira begira gelditzen dira*).

AMAIKAGAÏEN AGEÏALDIA.

Lenguak, Andre Kaximira ta Xele.

Bañenen Anbo-ato ta ondorengoak.

(*Bañenen*)

Anbo-ato —Anbo ato....

Ondor. —Maratila-tiia-tiia

Anbo-ato —Ato anbo....

Ondor. —Maratila-tiia-ton.

(*Andre Kaximira ta Xele eskuitik sartzen dira. Bernardo jaunak eta Lukax'ek esku emanaz agurtzen dituzte.*)

Bernardo Ongi etofiak, ama-alabak.

Lukax (*And: e. Kaximira'ri*)

Zer dio?

A. Kax. —Ondo ta zu?

Lukax —Ongi. Eskefikasko.

(*Xele'ri*)

Ta zu, Xele?

Xele —Ondo esan biarko

Lukax —Zuk ez esate ezkerro, nork esango du.

Bernardo —Nik aitatu nizuten gai aretan, gertu dago Lukax. Berak esango dizute.

A. Kax. —Ofa beaz.....

Lukax —Txoraturik, Andre Kaximira; txoraturik Xele. Baña Zantantzar jaituaz, alkafekin apaldu biar genuke, ta an erabakirik utzi Xele ta nere arteko eztabaida xamuña.

(*A. Kaximira ta Xele alkafi begira gelditzen dira*)

(*Bañenen*)

Anbo-ato —Anbo ato.

Ondor. —Maratila-tila-tila

Anbo-ato —Ato-anbo

Ondor. —Maratila-tila-ton

A. Kax. —Ez dakit zer esan ere.

Xele —Ama, joan egin biarko degu.

Lukax —Eskeřikasko, Xele.

Bernardo —Ederki esana.

Lukax — Guazen bada. Ta gaurko eguna izango da guretzat zorionezko Zanpantzar!

(Lukax Xele'rekin eta Bernardo jauna Andre Kaximira'rekin ezkeřetik joaten dira.)

AMABIGAŘEN AGEŘALDIA.

Txela, Txiala, Fifi, Fofu, Fufu, Axoliyo, Kikiriki, Biřor,
Musiu Kankar, Artza, Turutalaria, Bixigax, Mozořoak
eta Mutil koskořak, Anbo-ato.

(Eskuitik Axoliyo ta Kikiriki, besotik elduta ta tristaka sartzen dira. Ondotik Anbo-ato ta bere atzetik, Txela ta Txiala Bitor'ekin; Fifi, Fofu ta Fufu; Musiu Kankar Artzarekin; Bixigax, Mozořoak eta Mutil koskořak.)

Anbo-ato —Anbo-ato....

Guztiak —Maratila-tila-tila

Anbo-ato —Ato-anbo.....

Guztiak —Maratila-tila-ton

Axoliyo —Orain, Jeolimo dantzatu biar degu.

Guztiak —Bai, bai Jeolimo!

(Turutalaria turuta joaz ezkeřetik sartzen da. Guztiak oju egiten dlote)

E! E! Jeolimo dantzatu biar da! Jeolimo!

(Guztiak dantzarako gertu jartzen dira)

Axoliyo —Ba al gera?

Guztiak —Bai!

(Dantza egiten dute abestuaz)

Jeolimo

Daukagu guk dantzat

• Gogokua

Gu guziyorentzat

Jaitutzeko

Aurtengo Zantantzar

Triki triki ti; triki ti, triki tra,
Triki triki ti; triki ti tra

EZKUTAZAPIA JEIXTEN DA.

AMAIA.



Antzerki au egiteko bear diran gauzak.



Ingi-suge edo serpentinak zintzilika.

Baratz-alki bat.

Biñor—bere jantzia.

Anbo-ato — » »

Gramofono baten turuta edo bozina.

Fifi—bere jantzia, mozofoa.

Fofu— » » »

Fufu— » » »

Bixigax » » » gañondoan.

Maskuri bat.

Mutil koxkorak bere jantziak.

Txele— bere jantzia.

Txiala — » »

Mozofo 1.^o — » » ta mozofoa.

Id. 2.^o— » » »

Id. 3.^o— » » »

Turutalaria— » »

Turuta edo korneta bat.

Lukax—bere jantzia.

Kikiriki—bere jantzia, mozofoa, euritako autsi bat, aizemañe bat.

Axoliyo—bere jantzia, ginbaña luzea, lepoko edo korbata apaña.

Fifi, Fofu eta Fufu—3 zakutxo konfetti.

Andre Kaximira—bere jantzia, ginbalakin.

Xele— » » »

Musiu Kankar—perzkiñe jantzia.

Pandero bat.

Zato-ardoa.

Makil bat.

Artza lotzeko katea.

Artza - irudi ontako jantzia.

Armoniun.

Platiloak.

Tanboña.

3 sartagi ta 3 mañu.

Bernardo jauna - bere jantzia.

Zumalakarégi'tzaz drama bat

Gaur karlatafen gudatearen gora-beraz antzerki bat edo beste gure artean idatzi diran ezkerero ("Txinparta Buruzagi" —"Iru Gudari") on da jakin araztea, orain eun urte inguru, Friederich Senbold doitxar idazleak antzerki-itun edo traje-di bat argitaratu zula—"Zumalakarégi oder der Tod des Helden" deritzana (Leipzig-1836).

Lan onek bost ekitaldi ditu gure buruzagi ospetsua gai artuta. Ta Bilbao inguruko esialdi edo "setiuan" gertatuak dira. Tajuz ta ondo idatzitako antzerkia da, Klasikoen tanke-ran. Zenbait utsegite ta oker txiki ba-ditu ez da afitzekoa, ez bai-zan azaldu urte betez beranduago besterik. Emen ez det tokirik gauza aundirik esateko. Beste nunbait jardungo naiz gai ontaz aspealdi bat egitiaz Gaurkoz bakarik ikuskizun au begien afean ipiñi nai det: alegia, afotz bat etori bear erakustera antzerki bidez nolakoa izan zan euzkotar aundi baten bizitz ta eriotza.

Nik.

Euskel-antzezkizun jasa.

Poztu gaitean. Udazkena sortu ala, aberiaren lur gañera,

euskel-antzezkizun jasa ongaria erortzen asi da. Ori bear genuen.

Jai ta igande, Batzoki ta Eusko-Etxeetan bereziki, antzerki jaiak eruz ematen ari dira: Afasate, Eibar, Eloiño, Efenderi, Durango, Lasarte, Lezo, Markina, Donostia, Bilabona, Tolosa, Zarauz, Zumaia ta abar, amar, ogei. ogeitabost, ogeitamar euskel-antzezkizun, batera eman diran eguna izan da.

Naiko lan beste orenbeste erdel-teatrotan emanak izatea, Euzkadi osoan Euskel-antzerki an auferapenaren ezaugarri ori degu. Beraz, gure landaretxoa sendotzen, mardultzen dijoala. Ez da aski. Edertzen ta ertimalez igotzen joan bear du. Antzezlari taldeak zuzentzen dituzten jaunak ardura ori bere gain artu bezate. Egunetik egunera antzerki befiak sortzen ari dira, jatofiz euskeraz idatziak ala erderatik itzuliak. Beraz, egitarau egokiak osatzeko aukera ba-dago.

Ea bada, bizkortu ta ekin alkafen leian nortzuek obeto egin.

Aspoa.

Antzerki Sariketa.

Bilbao'ko Euzkeltzale-Bazkuna'k eratuta antzerki batzaldi baten deia irakuri degu. Antzerki onenentzako sariak di-

rutan eskeintzen dituzte. Zer-nola geiago jakin nai duanak Bilbao'ko Euzko Gaztedia'ren batzordeari galde bezaio.

“BAT” erti-taldea.

Bilbao'n Urtiaren 30'n ta bertako “*Filarmonica*” aretoan

lenen aldiz azaldu da “*Bat*” deritzan taldea.

Biar jaunaren lantxo bat antzestu ondoren *Itxas-txori urdina* abestu zuten, Uruñuela anaien “opereta”. Oso ederki, ta garaipen aundia izan omen dute abeslari ta antzezleri guziak. Negu guzian mota ontako antzezkizunak ematekoak dira.

8 PESETA URTEKO!

besterik ez da ordaindu bear ANTZERTI'ren

arpidedun izateko. Nai duenak, lenbailen

jakin-erazi, laguntza bear degu-ta.

